

## Fondoaren inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

### Caja Laboral Clásico Pentsio Plana

#### 1.> Pentsio-planaren identifikazio-datuak

##### >> Pentsio Planaren datuak

<b>a.</b> Izena	Caja Laboral Clásico Pentsio Plana
<b>b.</b> Sistema	Sistema indibidualerako pentsio-plana
<b>c.</b> Identifikazio-zenbakia <sup>1</sup>	N0116

##### >> Pentsio Fondoaren datuak

<b>a.</b> Izena	Caja Laboral, Pentsio Fondoak
<b>b.</b> Sistema	Pentsio-fondo pertsonala
<b>c.</b> Identifikazio-zenbakia <sup>1</sup>	F0057

##### >> Pentsio-fondoaren erakunde gordailuzainaren datuak

<b>a.</b> Izena	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito
<b>b.</b> Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta Pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
<b>c.</b> Identifikazio-zenbakia	D0194

##### >> Pentsio Fondoaren erakunde gestorearen datuak eta Planaren erakunde gestorea:

<b>a.</b> Izena	Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P.
<b>b.</b> Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
<b>c.</b> Identifikazio-zenbakia	G0217

#### 2.> Inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

- >> **Inbertsio-irizpidea** Fondoaren aktiboa partaideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, batez ere araututako merkatuetan, betiere segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispersioa, moneta-kongruentzia eta helburuetara moldatutako epeak aintzat hartuta.
- >> **Balorazio-irizpidea** Fondoko aktiboak merkatuko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, indarreko legediak finkatzen dituen gidalerroei jarraiki.
- >> **Banaketa estrategikoa** Planak gehienez ondarearen % 15 inbertitzen du errenta aldakorrean, baina merkatu antolatuetan aktibo deribatuak erabil ditzake portzentaje hori aldatzeko. Gainerako zorroa errenta finkoko tituluetan inbertituko da.
- >> **Arrisku-profila** Pentsio-plan hau inbertsio-profil kontserbadoreetarako eta/edo estalitako kontingentziaren bat gertatzeko aurreikusitako epea 5 urtetik beherakoa dutenentzat da gomendagarria.
- >> **Arriskuak neurtzea** Merkatu-arriskua: Fondoaren urteko hegakortasuna, errenta aldakorrean inbertitutako portzentajea eta errenta finkoko zorroaren iraupena.  
Kreditu-arriskua: Zorroko tituluen ratinga.  
Likidezia-arriskua: Likideziaren portzentajea zorroan.  
Errenta finkoa: Fondoaren iraupena. 0 eta 5 urte bitartekoa izango da.
- >> **Arriskuen kontrolaren gestioa** Errenta finkoa: Errenta finkoaren % 25 gutxienez zor publikoan (Altxorrek eta erakunde publikoak).  
Errenta aldakorra: Bokazioa globala da, batez ere ELGEko herrialdeena
- >> **Erreferentzia-indizeak** Errenta finkoa: Bloomberg Barclays Pan-european Aggregate 3-5yr TR.  
Errenta aldakorra: MSCI World.
- >> **Likidezia-koefizientea** Fondoak prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta gehienez hiru hileko mugaeguna duten diru-merkatuko aktiboetan egongo da.
- >> **Gainbegiratzea eta jarraipena egitea** Erakunde gestorearen middle office areak harturiko arrisku-maila kalkulatzeko eta inbertsio-politikan finkaturikoarekin bat datorren egiaztatze prozedurak ditu.
- >> **Indarraldia** Nahi adina

<sup>1</sup> Aseguruen eta Pentsio Fondoaren Zuzendaritza Orokorren erregistro bereziko identifikazio-zenbakia